

MISIOA

Bilboko Ingeniaritza Eskola da UPV/EHUren ikastegi eta ikergune bat, eta misiotzat du ingeniaritzako profesionalak prestatzeko ezagutzak sortzea eta transmititzea, enpresaren, zientziaren eta ikasketen esparruetan behar bezala aritzeko gaitasunak izango dituzten profesionalak.

Horretarako, industria, teknologia eta unibertsitate-ingurunearekin lankidetzat estua du, eta graduko, masterreko eta doktoregoko prestakuntza-eskaintza zabala du, ikasleei azken aurrerapen teknologiko eta zientifikoekin harremanetan jartzeko aukera ematen diena.

IKUSPEGIA

Ingeniaritza Eskolaren konpromisoa da bultzada ematea bere ingurune ekonomiko, sozial eta laboralari, irizpide jakin batzuen arabera: kalitatea, gizarte erantzukizuna, garapen jasangarria eta irekitasuna.

Bilboko Ingeniaritza Eskolak espero du 2025ean:

1. **Ikasleek** eskola ikastegi bikain gisa aitortzea, haren irakaskuntza eskaintzaren kalitateagatik eta aniztasunagatik.
2. **Unibertsitateko kideek** eskola erreferentzia ikastegi gisa aitortzea, haren kalitateagatik eta etengabeko hobetzeko espirituagatik.
3. **Nazioarteko komunitateak** eskola erreferentzia ikastegitzat hartzea, irakaskuntzen kalitateagatik.
4. **Enplegatzaileek** eskola erreferentzia ikastegitzat hartzea, egresatuei eman dien prestakuntzagatik.
5. **Gizarteak** eskola ospe handiko unibertsitate ikastegitzat hartzea.

BALIOAK

a. Balio instituzionalak

Bilboko Ingeniaritza Eskola da:

- **Ikaslea ardatz** duen ikastegia: ahalegintzen da erantzuten egungo eta etorkizuneko ikasleen beharrei eta itxaropenei, unibertsitate aurreko ikasketetatik hasi eta unibertsitate etapa amaitu arte.
- **Nazioartekoa eta dinamikoa**: prest dago elkarlanean aritzeko unibertsitate, teknologia, ikerketa eta enpresa erakundeekin, Estatukoak zein nazioartekoak, malgutasunez eta une eta ingurune bakoitzeko egoera edo baldintzetara egokitzeko gaitasunarekin.
- **Sozialki eta korporatiboki arduratsua**: etikoki konprometitua dago garapen jasangarriarekin, gizarte ongizatearekin eta erakunde gisa duen prestigioa hobetzearekin.
- **Irekia eta plurala**: etikoki konprometitua dago pertsonen aukera berdintasunarekin, aniztasunarekin eta diskriminaziorik ezarekin.
- **Eleaniztuna eta konprometitua euskararen sustapenarekin eta erabilerarekin**: bultzada ematen dio atzerriko hizkuntzak ikasteari eta erabiltzeari, bai eta euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeari ere.
- **Efikaza eta efizientea baliabideen gestioan**: emaitza bikainak bilatzen ditu, dituen baliabide publiko eta pribatuen erabilera optimizatuta.
- **Parte-hartzailea eta elkarrizketaren aldekoa**: laguntzeko prest dago, interesatzen zaizkion gaiak lantzen dituzten egitasmo, proiektu edo taldeetan, bere jakintza, iritzia eta esperientzia emanaz, espiritu eraikitzailez eta adostasunez.
- **Berritzailea eta etengabe hobetzeko borondatea duena**: saiatzen da sortzailea eta abangoardista izaten, jardun eremu guztietan -irakaskuntza, ikerketa eta gestio-, bai eta emaitzak etengabe hobetzen ere.

b. Balio pertsonalak

Bilboko Ingeniaritza Eskolako kide garenok balio hauek ditugu gure lanean:

- **Konpromiso eta jokabide etikoa:** eman dizkiguten betebeharrak betetzen ditugu, arauak errespetatuz.
- **Erantzukizuna:** erabakiak kontzienteki hartzen ditugu, ondorioak gure gain hartzen ditugu eta dagokionaren aurrean erantzuten dugu.
- **Emaitzetara eta eraginkortasunera bideratua:** asmo handiko helburuak ezartzen ditugu eta horiek lortzeko ahalegin osoa egiten dugu.
- **Profesionaltasuna eta etengabeko prestakuntza:** ahalegintzen gara gure lanbidea bikain betetzen eta gure gaitasunak etengabe hobetzen.
- **Jasangarritasuna eta efizientzia baliabideak erabiltzean:** saiatzen gara baliabideak era jasangarrian eta arduratsuan erabiltzen, hiru printzipio nagusitan oinarrituta: Murriztea, Berrerabiltzea eta Birziklatzea.
- **Talde lana:** elkarlanean aritu nahi dugu beste pertsona batzuekin, elkarri lagundu, eta sinergiak bilatzen ditugu, denonak diren helburuak betetzeko.
- **Genero berdintasuna:** gure xedea da pertsona guztiek baldintza, aukera eta tratamendu berberak izatea, eta genero diskriminazioaren aurka gaude.
- **Erakunde entzutetsu bateko kide izatearen kontzientzia eta harrotasuna:** errespetu osoa zor diogu erakundeari, eta haren ospea egunez egun hobetzeko betebeharra dugu.